

EUSKARA PLANA



2017. URTEKO TXOSTENA

1

Agiri honetan jasotzen dira 2017.urtean Spri Taldeko *Euskara Planaren* esparruan egindako jardun guztiak, baita adierazleak ere.

I - EUSKARA LANTALDEA

Euskara Lantaldea zazpi pertsonak osatzen dute: Spriko Ines Garcia, Isabel Garro, Maite Hernandez, Gontzal Barasorda eta Jasone Aretxabaleta, Sprilurreko Ander Betzuen eta Arrisku Kapitaleko Maria Arbide. Urte amaieran, Maria Arbidek Batzordea utzi egin du eta bere ordezkari Idania Caminos sartu da, Arrisku Kapitaleko ordezkari bezala.

Euskadiko Parke Teknologikoek SPRI Taldearen Euskara Planarekin bat egin dutenez, Lantalde honen kide ere bihurtu dira: Izaskun Arriaga eta Aitor Elorduy.

2017. urtean zehar 6 bilera egin ditu lantaldeak Euskara Planaren urteko ekintza plana eta jardun desberdinak proposatu, aztertu eta erabakitzeke.

II - EUSKARA BATZORDEA

Euskara Batzordea bost pertsonak osatzen dute: Alex Arriola, Aitor Peñeñori, Iñaki Suarez, Oscar Alberdi eta Miren Madinabeitia.

2017. urtean zehar bilera bakarra egin du Batzordeak, lantaldeak egindako proposamenak aztertu eta oniritzia emateko.

III - EKINTZA PLANA

2017.eko otsailaren 24an "Albisteen Txokoa" jarri da martxan Intranetean, Intraneta euskaraz daukanak, albisteak euskaraz jaso eta ikusten ditu.

2017.urtean zehar ez da aurreikusitako INKESTA egin.

MINTZAPRAKTIKA JARDUNAK

Ekintza Planean jasotako mintzapraktika saioetatik bakarra baino ez da egin. Hau da 2017ko ekintza planean jasotakoa:

- 1 Apirilaren 5ean egingo da lehen mintzapraktika saioa: ELAY enpresara bisita. 10 personako taldea izan behar du, asko jota, hortaz, Euskara Lantaldeko pertsona bat edo bi joango dira. Gontzal ari da antolatzen. Zuzendari Nagusiak oniritzia eman dio.
- 1 Udazkenerako beste bisita bat egingo da, MAIER enpresarekin egingo dugu harremana, mintzapraktika saio hori antolatzeke.
- 1 Bisita gidatua, euskaraz: Bilbo industrial!
- 1 Mendira irteerak euskaraz, ekaina-iraila, etenik gabeko jardunean egitea da egokiena eta astelehenetik ostegunera.
- 1 Kafe tertulia martxan jartzea: hilean behin, kafe makinatan.
- 1 Jolasa (abenduan egin genuena bezalakoa errepika daiteke).

EUSKARA PLANA



2017. URTEKO TXOSTENA

2

Egin, ordea, bakarra egin da: **Bisita gidatua euskaraz: Bilbo Industrial!**



Uztailak 13:

12 pertsonak eman zuten izena mintzapraktika saioan. BILBAO TOUR GUIDE konpainia kontratatu genuen bisita gidatua egiteko (165€, bez barne, 2 orduko bisita). Balorazio oso ona izan zuten bisitak.

KORRIKA 2017



SPRI Taldeko 10 lagun inguru batu eta taldean egin zuten korrikaldia.

Hurrengo Korrikan, 2019an alegia, SPRI Taldeak kilometro bat erosteko proposamena egingo du Lantaldeak.

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Uztailaren 6an bilera, Lakuan: Miren Dobaran, sailburuordea, Josune Zabala, zuzendaria eta Koro Miner, teknikaria + Alex Arriola, Oskar Alberdi eta Jasone Aretxabaleta, SPRIko zuzendari nagusia, idazkari nagusia eta teknikaria hurrenez hurren.

Elkarlanerako bideak zabaltzeari buruz hitz egin zen, batez ere enpresa industrialei laguntza emateko.

EUSKARA PLANA



2017. URTEKO TXOSTENA

3

ENPRESAREAN

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da Enpresarean proiektuaren bidez. 2016.urtean ENPRESAREAN AZOKA antolatu bazen, 2017an ENPRESAREAN FOROAK antolatu dira eta SPRIk hartu du parte. Ekainaren 15ean ULMA – Oñatin egin zen foroan izan ginan.

Azaroaren 21ean SPRI izan zan ENPRESAREAN Foroaren protagonista, 4.0 Industriari buruzko aurkezpenarekin, Alex Arriola zuzendari nagusiaren eskutik. Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko areto baten egin zen hitzaldia 20 bat lagunen aurrean.



SPRI Taldeak hitzarmena egin du 2017an Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkartearekin, 2017ko ekintzak eta ekimenak babestu eta laguntzeko.

EUSKARARA ITZULITAKO DOKUMENTUAK

- Berdintasun planaren emaitzen txostena
- Berdintasun planaren eranskina eta 2017ko ekintza plana
- Kudeaketaren gidaliburua
- PR 10 + PR13 + PR 14 + PR 19
- SPRI Barneko kontu ikuskaritza plana
- Programak diseinatzeari buruzko praktika egokien eskuliburua
- Autoebaluazio txostena
- Erantzunkizun Sozialaren txostena

EUSKARA PLANA



2017. URTEKO TXOSTENA

4

BESTE JARDUN GARRANTZITSU BATZUK

- Spri Taldeak euskara plana dinamizatzeko zerbitzua kontratatu du: ARTEZ, ELHUYAR eta EMUNi eskatu zitzaizkien proposamenak eta ARTEZen proposamena onartu zen. Urriaren amaieran hasi ziren planaren dinamizaziorako lehen urratsak ematen.

IV – EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAK

Euskadiko Parke Teknologikoek euren *Euskara Plana* egin eta garatzeko.

INKESTA

Abenduan egin zen inkesta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Parke Teknologikoetan lan egiten dutenen artean. 34 pertsonak hartu dute parte inkestan:

PTAraba = 8

PTBizkaia = 16

PTGipuzkoa = 10

Eraitza aipagarrienak:

- Euskara maila **altua** edo **ertaina** dutenak **%70'6** dira.
- Lanean euskara **sarritan** erabiltzen dutenen kopurua **%44,1**ekoa da.
- Euskararen erabilpena, bai langileen artean baita hornitzaileekin ere, oso txikia da.
- Euskara plana bultzatzen laguntzeko prest daudenak, **%94'1** dira.

V – EUSKARA SARIAK

2017. urtean bi pertsona izan dira *Euskara Saria* jaso dutenak:

ISABEL GARRO: euskara profila lortu duelako (EGA).

IZASKUN ARRIAGA: Euskadiko Parke Teknologikoen ordezkaria egin da Spri Taldeko Euskara lantaldean. Erantzunkizun hau ilusioz eta kemenez hartu duelako eman diogu aurten *Euskara Saria*.

EUSKARA PLANA



2017. URTEKO TXOSTENA

5



Abenduaren 22ko Gabonetako ekitaldian banatu ziren 2017ko Euskara Sariak, Arantza Tapia sailburua bertan zela.

ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	2014	2015	2016	2017
Sistema operatiboa euskaraz jarrita dutenak	1	6	6	
Intraneta euskaraz erabiltzen dutenak			4	4
Euskara sustatzeko SPRIk antolatutako ekintzetan parte-hartu dutenak	0	7	22	12
Euskara sustatzeko beste erakunde batzuk antolatutako ekintzetan parte-hartzen dutenak		2	2	10
Euskara ikastaroetan parte hartzen dutenak	13	17	17	14
Bezeroen arretarako zerbitzuaren bidez SPRIrekin harremanetan euskara erabiltzen dutenak	1,30%	1,70%	1,66%	
Bezeroaren asebetetze inkesta euskaraz betetzen dutenak (Bezeroak %7 – Hornitzaileak %3,95)	6,40%	5,30%	5,47%	
Euskaraz erabil daitezkeen barne aplikazioak	0	2	7	7
Euskararen erabilpena neurtzeko inkesta	1	0	1	0
Euskaratutako barne-dokumentuak		4	9	8
Enpresa Digitalaren ekitaldiak euskaraz			1	6